



EBAZPENA, 2026KO MAIATZAREN 4KOA, TURISMO ETA OSTALARITZAKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA EGITEN BAITZAIO EUSKADIKO TURISMO-GIDARIEN JARDUERA ARAUTZEN DUEN DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUARI

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak honako hau ezartzen du 11. artikuluan, herritarrei alde aurreko kontsulta egiteari dagokionez:

"1.– Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia. Herritarrei zuzendutako alde aurretiko kontsulta-izapide horretan, beharrezko neurriak hartuko dira, ziurtatzeko, batetik, gizon eta emakumeen ordezkaritza orekatua, eta, bestetik, arautzekoa den alorrean edo sektorean berdintasuna bultzatzen duten elkarteen parte-hartzea. Halaber, hizkuntza-eskubideak errespetatuko zaizkio alde aurretiko kontsultetan parte hartzen duen orori, Administrazio langile zein herritarra izan.

2.– Alde aurretiko kontsulta kapitulu honetan araututako prestaketa-fasean sartzen da. Izan ere, herritarrekiko interakzio izapidea da, zeina halako moldez egingo baita, non xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izango duten iritzia emateko, behar besteko epean, berau hamabost egun baino gutxiagokoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu baino lehen.

3.– Alde aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita. Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da: arau onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten."

Bestalde, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik ordezkarriaren iritzia jasoko da ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoei buruz, hura onartzeko beharri eta egokitasunari buruz, arauaren helburuei buruz eta egon daitezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzailei buruz.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza organo sustatzailea da, eta hasiera emango dio EAEko turismo-gidariaren jardura arautzen duen Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedurari. Hori dela eta, aipatutako artikuluan ezarritakoa betez, eta herritarrek prozeduran parte har dezaten sustatzeko, 15 egun balioduneko kontsulta publikoko aldi bat irekitzen du, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, bai Legegunea webgunean eta Irekia gobernu irekiaren plataforman.



Horrenbestez, honako hau

**EBAZTEN DUT**

Lehenengoa.- Kontsulta publikoaren izapidea egitea Euskadiko turismo-gidariaren jarduera arautzen duen dekretua aldatzeko dekretuaren prestaketari, egin aurretik, 15 egun balioduneko epean, ebazpen hau egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.- Ebazpen honen eranskina onartzea, herritarrek ekimenari buruzko iritzia emateko behar den informazioarekin.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean

CLARA NAVAS ROMANO  
Turismo eta Ostalaritzako zuzendaria

## ERANSKINA

### EUSKADIKO TURISMO-GIDARIEN JARDUERA ARAUTZEN DUEN DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETUA EGIN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Euskadiko turismo-gidarien jarduera arautzen duen Dekretua aldatzeko dekretua egiten hasteko asmoa du.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan 1. apartatuan ezarritakoaren arabera, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat egingo da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek gai hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Arestian adierazitakoa betez, eta aipatutako Dekretua egin aurretik, honako gai hauek planteatzen dira:

<p>EKIMENAREKIN KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</p>	<p>Turismo-gidariaren jardueran aritzeko zuzeneko gaikuntzaren araubidea indarrean jarri zenetik metatutako esperientziak agerian utzi du muga jakin batzuk dituela euskal turismo-sektoreak eskatzen dituen kalitate- eta profesionaltasun-estandarrak erabat bermatzeko gaitasunean.</p> <p>Eredu horrek, bere garaian, administrazio-kargak sinplifikatzeko borondateari erantzun zion, baina denborak agerian utzi du ziurtapen-, egiaztapen- eta kontrol-mekanismoak indartu behar direla, jarduera hori egiten duten pertsonen kalitatezko zerbitzua eskaintzeko gaikuntza egokia eta behar diren gaitasunak dituztela ziurtatzeko.</p> <p>Aldaketa horren helburua da administrazio-sinplifikazioa orekatzea zerbitzuaren kalitate-berme ezinbestekoarekin, erabiltzaileen konfiantza indartuz. Horrekin, eredu sendoago baterantz egiten da aurrera, turismoaren egungo beharrekin eta Euskadiko turismo-politikaren inspirazio-iturri diren bikaintasun- eta jasangarritasun-helburu estrategikoekin koherentea izango den eredu baterantz.</p>
<p>ONARTZEAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA</p>	<p>Turismo-gidariaren lanak funtsezko zeregina betetzen du kultura-ondarearen interpretazioan eta turismo-esperientziaren kalitatean, eta, testuinguru horretan, ezinbestekoa da bermatzea lanbide-gaikuntzarako sarbidea irizpide objektiboetan, uniformeetan eta guztiz bermatzaileetan oinarritzen dela.</p>



	<p>Indarrean dagoen arauan onartutako prestakuntza-profilen aniztasunak, baliotsua izan arren, tresna gehigarriak behar ditu, pertsona gaitu guztiek jarduera behar bezala egiteko behar diren ezagutzak eta trebetasunak dituztela egiaztatzeko. Hori dela eta, egokitzen jotzen da indarrean dagoen arau-esparrua berrikustea eta eguneratzea, eta gaikuntza-sistema bat ezartzea, eskatutako baldintzak betetzen direla modu zorrotzago eta eraginkorragoan egiaztatu ahal izateko.</p>
ARAUAREN HELBURUAK	<p>Dekretu-proiektuaren xedea izango da Euskadiko turismo-gidarien jarduera arautzen duen martxoaren 5eko 26/2024 Dekretua aldatzea.</p>
POSIBLE DIREN IRTENBIDE AUKERA ARAUTZAILEAK ETA EZ-ARAUTZAILEAK	<p>Aurreko apartatuetan azaldutako inguruabarrak direla eta, dekretu-proiektu hau egitea beharrezkotzat jotzen da, eta ezin da beste aukera arautzailerik planteatu.</p>